TOLOSAKO UDALA

## KARROZEK TOLOSAKO INAUTERIETAN PARTE HARTZEKO ARAUAK

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- Inauterietan karroza ateratzeko baimenaren fitxa.
- Karrozak erantzukizun zibileko asegurua duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

**Parte hartzaileen betebeharrak:**

- Berdintasun irizpideak bete behar dira: ez dira onartuko jarrera diskriminatzailea duten karrozak eta konpartsak, batez ere, pentsamolde diskriminatzaileak sustatzen badituzte emakumeen edo bestelako identitate sexualen aurka (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak).
- Jende aurreko alkohol kontsumoak eredugarria izan behar du. Hala, debekatuta dago edari alkoholdunak agerian izatea eta haiek sustatzea. Alkohola modu arduratsuan kontsumituko dute helduek: neurriz eta kontuz.
- Debekatuta dago karrozetan publizitatea egitea.
- Segurtasun arrazoiak direla eta, komeni da dekorazio elementuak suaren aurkako materialez eginda egotea, eta dekorazio elementuak erraz desmuntatzeko modukoak izatea.
- Ordutegia: goizean 11:00etan has daitezke emanaldiak, eta goizeko 01:00ean musika itzali beharko dute.
- Soinuaren bolumena: karroza eta konpartsak irten aurretik, soinua 5.000 watt eta 85 dezibeliotara egokitu beharko dute. Maila horiek gainditzen dituztenek dirulaguntza gal dezakete, baita hurrengo egunetan ateratzeko baimena ere.
- Udalak parte hartzeko emandako zenbakia karrozaren aurrealdean eta alboko aldean jarri behar da.
- Karrozetatik serpentinak, konfetiak eta antzekoak bakarrik bota daitezke; ezin da beste ezer bota.
- Debekatuta dago su jaurtigailuak eta material piroteknikoa erabiltzea.
- Debekatuta dago barbakoak eta gasezko sukalde edo antzekoak erabilita elikagaiak prestatzea. Debekatuta dago desfileetan animaliak erabiltzea.

Desfilean ateratzen diren karrozek egiturari lotutako eskakizun eta **segurtasun neurri** hauek bete beharko dituzte gutxienez:

- Karrozek Tolosako Karrozen Elkarteko kide izan behar dute, eta estatutuek diotena bete behar dute.
- Ezinbesteko baldintzak: musika-ekipoa, antzezlana edo koreografia egitea, su itzalgailua izatea eta parte hartzaileak, gutxienez, 5 izatea.
- Plataformek pneumatikoz hornituta eduki behar dituzte gurpilak, eta gutxieneko erabilera baldintzak betetzeko moduan egon beharko dute.
- Desfilean parte hartzen duten trakzio ibilgailuetarako gidabaimena aurkeztu dutenek bakarrik gidatuko dituzte ibilgailu horiek. Ezingo ditu beste inork gidatu.

**Ibilbidean aintzat hartu beharrekoak:**

- Istripurik ez gertatzeko, karrozan, gehienez ere, 8 pertsona igo ahal izango dira.
- Desfileen egunetan, karrozak gidatzen dituztenek pabiloian egon behar dute karrozen elkartearekin adostutako orduan, ordenatuta eta desfilean egokitutako lekuan irten ahal izateko. Hitzartutako orduan han ez dagoen karrozak galdu egingo du desfilean zegokion lekua, eta azken tokia hartuko du.
- Udaltzainek lagundu egingo dute karrozak desfilera eramaten, eta, gero, itzultzerakoan ere, laguntza eskainiko dute. Errepidea itxita egongo da, eta udaltzainek babestuko dituzte ibilbide osoan zehar, istripurik gerta ez dadin.
- Aurrera egiteko, 10 metrotik gorako distantzia utzi beharko da karroza eta konpartsen artean, eta ilaran eta uniformeki mugitu beharko dute.
- Matxura edo gorabeheraren bat gertatuz gero, ibilgailua, karroza edo konpartsa atera egin beharko da bidetik, eta berehala jakinarazi beharko zaio udalari.
- Karrozentzat ibilbide bat dago finkatuta, eta hor ibili beharko dute. Ezingo dira ibilbide horretatik kanpo ibili.
- Ibilbideko kokapenak zozketa bidez esleituko dira, iaz irabazle izandakoena izan ezik (horiek, sari moduan, gustuko duten lekua hautatuko dute).
- Ibilbidean esleitutako lekua aldatzeko, antolatzaileek horretarako emandako baimena behar da.
- Txarangak une oro errespetatu behar dira, batik bat kalejira garaian, bai zezen plazarako bidean, baita bueltakoan ere. Kalejiraren ibilbideak libre egon behar du. Horrez gain, karrozek itzalita eduki beharko dituzte musika ekipoak tarte horretan.
- Karrozek eta konpartsek, ibilbidean istripurik gerta ez dadin, musika itzalita

dutela ibili beharko dute, eta debekatuta dago gainean joatea.

- Debekatuta dago hondakinak bide publikora botatzea (adibidez: zaborra, likidoak eta hondakinak).
- Debekatuta dago kristalezko edalontziak erabiltzea, eta, salbuespen gisa, kristalezko botilak karrozetan eta konpartsetan bakarrik erabili ahal izango dira, eta ondoren, dagokien zaborrontzira bota beharko dira.

**Arauak eta betebeharrak ez betetzea:**

Betebehar horiek guztiak betetzen ez dituzten karrozak Asteartitan irteteko baimenik gabe gelditu ahal izango dira, baita dirulaguntza jaso gabe ere. Bereziki kontuan hartuko dira arau hauste hauek:

- Disko konpartsek, hau da, musika anplifikatua jartzeaz gain beste jarduerarik egiten ez duten karrozek, ez dute dirulaguntzarik jasoko.
- Esleitutako dirulaguntzaren % 100 kenduko zaie gehiegizko zarata maila dutenei, eta zarataren kontrolerako eremu berezia errespetatzen ez duten karrozei, baita ibilbideko kokapena, bolumena edo beste betebeharren bat errespetatzen ez dutenei ere. Hurrengo egunetan ateratzeko baimena ere kendu egingo zaie.

# NORMAS DE PARTICIPACIÓN PARA LAS CARROZAS EN LOS CARNAVALES DE TOLOSA

## Documentación a presentar:

- Ficha de autorización para la salida de carrozas en los carnavales de Tolosa.
- Fotocopia del documento que acredite que la carroza posee seguro de responsabilidad civil.

## Obligaciones de los/las participantes:

- Se deberán respetar los criterios de igualdad: no se admitirán carrozas y comparsas que muestren actitudes discriminatorias, especialmente aquellas que promuevan mentalidades discriminatorias hacia las mujeres y otras identidades sexuales (lesbianas, homosexuales, transexuales, intersexuales).
- Los hábitos de consumo de alcohol ante el público deben ser ejemplares. En ese sentido, está prohibido llevar bebidas alcohólicas al descubierto, y promocionarlas. Los/las adultos/as consumirán alcohol de forma responsable, con moderación y cuidado.
- No se hará publicidad en las carrozas.
- Por razones de seguridad, es conveniente que los elementos decorativos estén hechos de material ignífugo, y que la decoración sea fácilmente desmontable.
- Horario: por la mañana, pueden comenzar las actuaciones a las 11:00 horas, y a la 01:00 de la mañana, se debe apagar la música.
- Volumen del sonido: las carrozas y comparsas, antes de su salida, deberán ajustar el sonido a 5.000 vatios y 85 decibelios. Los que superen estos niveles pueden perder la subvención, e incluso, la autorización para salir en los próximos días.
- Los números de participación facilitados por el Ayuntamiento deben colocarse en la parte delantera y lateral de la carroza.
- No se podrá arrojar nada desde las carrozas; solamente serpentinas, confetis y similares.
- Se prohíbe el uso de lanzallamas y material pirotécnico.
- Se prohíbe preparar alimentos con barbacoas o cocinas de gas, o similar. No se permite el uso de animales en los desfiles.

Las carrozas que salgan en el desfile deberán cumplir los requisitos mínimos estructurales y de seguridad que se especifican en los siguientes puntos:

- Las carrozas deberán formar parte de la asociación de carrozas de Tolosa, y deberán cumplir lo que establezcan sus estatutos.
- Requisitos imprescindibles: equipo de música, representación o coreografía, extintor y mínimo de 5 participantes.
- Las plataformas deben tener las ruedas equipadas con neumáticos, y su estado cumplirá las condiciones mínimas de uso.
- Serán conducidos únicamente por las personas que hayan presentado el permiso de conducción de los vehículos de tracción que participen en el desfile. Nadie más podrá conducirlos.

**Durante el recorrido:**

- Para evitar accidentes en las carrozas, se podrá montar en ellas un máximo de 8 personas.
- Durante los días de los desfiles, las personas que conducirán las carrozas deberán estar en el pabellón a la hora acordada con la asociación de carrozas, para poder salir ordenadamente y en el lugar que les haya correspondido en el desfile. De no estar a la hora convenida, la carroza perderá el lugar que le correspondía en el desfile, y ocupará el último lugar.
- Los/las agentes de la Policía Municipal ayudarán, en todo momento, a llevar la carroza al desfile, así como en la vuelta al pabellón. La carretera permanecerá cortada, y los/las agentes municipales protegerán a las carrozas para evitar accidentes durante todo el recorrido.
- La distancia de desplazamiento entre carrozas será superior a 10 metros, debiendo trasladarse alineada y uniformemente. Deberán todos moverse en el lugar correspondiente.
- En caso de avería o incidencia, el vehículo, la carroza o la comparsa deberá apartarse de la vía, y avisar inmediatamente al ayuntamiento.
- Se ha fijado para las carrozas un recorrido en el que estarán paradas. No podrá circular fuera de ese recorrido.
- Las ubicaciones del recorrido se adjudicarán por sorteo, excepto a las ganadoras del año pasado, que a modo de premio, elegirán su ubicación.
- Los lugares asignados en el itinerario no podrán ser modificados, excepto con la autorización expresa de la organización.
- Las charangas deben respetarse en todo momento, especialmente durante el pasacalles, tanto en el camino hacia la plaza de toros, como a la vuelta. El recorrido del pasacalles debe estar libre. Las carrozas tendrán apagados los equipos de música en este tramo.
- Las carrozas, para evitar accidentes en el recorrido, deberán apagar la música para desplazarse, y sin nadie montado/a sobre ellas.
- Se prohíbe depositar residuos en la vía pública (líquidos y residuos).
- Se prohíbe el uso de vasos de cristal y, excepcionalmente, las botellas de cristal sólo podrán

utilizarse en carrozas y comparsas, siempre que después se depositen en el contenedor adecuado.

**Incumplimiento de normas y obligaciones:**

- Las carrozas que no cumplan todas estas obligaciones podrán quedarse sin opción de salida el martes de carnaval, incluso sin recibir la subvención. Se tendrán especialmente en cuenta las siguientes infracciones:
- No recibirán la subvención las comparsas de disco; es decir, las carrozas que no realicen otra actividad que la de poner música amplificada.
- Se descontará el 100% de la subvención concedida a las carrozas que presenten niveles de ruido excesivos, y no respeten la zona específica de control de ruido, así como la ubicación, volumen u otras obligaciones del itinerario. Asimismo, se les retirará la autorización para salir en los días siguientes.